

bidegileak



**Juan San Martin (1922-2005)**

Egilea:

**ANTTON NARBAIZA**

## Sortu eta bizi

1922ko ekainaren 23an, Donibane egunaren bezperan, bada, jaio zen Juan San Martin Eibarren eta 2005eko maiatzaren 30ean hil Hondarribian. Ama Otxandio-koa zuen Juanitok, aita eibartarra. Honak *Egiguren (Eguren)* baserrian zuen jatorria eta lanbidez eskopetagina zen. Gizaseme liberala eta ezkertiarra, Errepublikako legezko gobernuaren alde jarri zen Espainiako 1936ko Gerrak ez-tanda egin zuenean. Seme-alabek, berriz, bi anaia eta bi arrebak osotzen zuten San Martin-Ortiz de Zarate familia. Juanitoren haurtzaroa eta gaztaroa, bere sasoioko beste hainbat gazterena bezalatsu, Gerra Zibilak markatua etorri zen.



Juan San Martin (1922-2005)

Gerra eta haren ondorio latzak ondoko bertsoetan laburbiltzen dizkigu San Martinek:

Askatasun bidea  
Gurutzez betea.  
Ekaizpe batean  
nire haurtzaro:  
mendietan anaiak  
milaka herio.  
Amatxo, gizonak  
guduka, zergatik?  
-Herri baten arnasa  
iraun nahirik.

Hain zuzen, etxetik alde egin behar izan zuten familiak Bizkaia aldera, Arratiara aurrenik, eta gero Bilbora. Santanderretik eta Gijonen zehar Bordelerantz zihoan itsasontzia frankistek harrapatu zutelarik, San Martindarrak El Ferrol-era eramán zituzten eta, ondorioz, Eibarrera itzuli behar izan zuten. Jaiotetxea suntsitua aurkitu zuten 1939an, Gerra amaitu ondoren berriro ere herrira itzuli zirelarik. 17 urteko gazte hari lanari ekiteko ordua etorri zitzaion. Tornero hasi zen. Ikasi nahi bazuen gauzez izan beharko zuten.

Gizartean bestalde, askatasun gabeko giroa etsigarria zen. Frankismoaren tunela, iritziak iritzi, oso luzea zetorren. Aurki, soldadutza iritsiko zaio San Martini. Madril eta Burgos izango dira Juanitori egokituko zaizkion hiriak.

Eta soldadutzan gertakari arrunt batek euskaltzaletasunaren sua piztuko du eibartar gaztearen baitan. Hain zuzen, amari idazteko garaia helduko zaio eta gure gazteak, gaztelaniaz alfabetatua, erdaraz ekingo dio bere gutunari. Baina berehala pentsatzen hasten da zeinen arraroa egiten zaion beti euskaraz entzun duen amari gaztelaniaz idatzi beharra. Une hartan konturatuko da ezkutuan bezala baina bizi-bizi daramala berak egunero erabili arren kultur estatusa lortzeke da goen beste hizkuntza bat: euskara.



Juanito umetan



Mendia. Juanitoren zaletasun handia.  
Durangaldeko mendietan, Aitz txikin

## Mendizaletasunetik etnografiara espeleologiatik igaroz

Soldadutzaren zerga ordaindu ondoren San Martinek itzultzean erbestean sentitu duen euskararenganako arrotasuna ez luke bere inguruan sentitu nahi. Baina frankismoak bere debekuen makina pasatzen jarraitzen du.

Kultur basamortu hartan Eibarko gazte askok mendia aukeratuko dute aterpe. Juanitoren herrian gainera, bada 1924tik gazte jendea mendirantz bideratzen duen elkartea. Eibarko Club Deportibok, hain zuzen, debe-



Pyrenaica aldizkaria. San Martinen lehenengo kroniken lekuko

kuak debeku, gazteak nolabait *hezi* egiten ditu errejimenaren zabalkunde ofizialak zabaltzen dituen mezuetatik urrun. Elkartearen ekimenak, xumeak agian baina etengabeak gertatuko dira.

Giro hartan, giza baloreak, hots, adiskidetasuna, solidaritatea, kezka soziala, azkar atzemanen ditu Juanitok. Baina ezin ahantzi mendia dela bere askotariko alderdietatik gure gaztea asebetetzen duen jarduna. Mendiak liluratzen duelarik, Juanitok Euskal Herriko zein Pirineo, Alpes eta beste hainbat mendikatetako tontorrek ezagutu eta gainduko ditu. *Pyrenaica* Euskal Herriko mendizale elkartearen aldizkari ezagunak Juanitoren ekarpen berriak argitaratuko ditu.

Mendiak gordetzen zuen erakarpena haitzuloek San Martinengan sortarazten zuten misterioarekin aldera daiteke soil-soilik. 1961ean ospe handia duen San Martin harriko leize-zulorako 2. espedizio garrantzitsuan hartuko du esku frantziar-euskaldun talde baten partaide. Berarekin dira Felix Ruiz de Arkate gipuzkoar espeleologo ospetsu eta zaildua, Antonio Arratibel adiskidea eta beste sei frantziar. Hamar egun eta ia beste horrenbeste gau pasatuko dituzte naturaren eztanda den paraje ikaragarri hartan.

Mendiak, bada, gizakiaren nondik norakoaz hausnartzeko bidea ematen dio. Eta lagun taldearen inguruan bere zaletasun handienetako bati eusteko: irakurzaletasunari. Eta



Mendia beti present San Martinen bizitzan

gogo hura, hain zuzen, eremu zabal haietan ikusten dituen edonolako monumentuen eta aztarnen berri ezagutzen gauzatuko du.

Trikuharri, kromlech eta bestelako aurkikuntzak oso tentagarriak egiten zaizkio. Juanitok, adibidez, mendian aurkitu duen neolitoko aizkoraren testigantza, herri urrun hartako basilizak iradokitzen dizkion xehetasunak, edota harantzago kopla zahar batzuk nekazarien eztarrietatik, horrelakoak eta beste hainbat eta hainbat alor-lan jasoko ditu bere artikuluetan. San Martinek bere zaletasunaren bi-

dez Euskal Herriko bazter ezkutuenak ezagutu eta ezagutaraziko ditu.

Baina etnografiaren ezagutza, on Jose Migel Barandiaran, on Julio Caro Baroja eta beste hainbat maisuren itzalean bideratzen badu ere, laster bere ekarpenak egiten hasiko da han-hemenka barreiatuak zeuden aldizkarietan, hara nola, *Munibe-n*, *Fontes-en* eta abar.

Bestalde, nahiz eta jarduera hartan orduan oraindik ohitura ez izan, aipaturiko alorretako lekukotasun asko euskaraz jasoko ditu aitzindari bihurtuko delarik langintza honetan.



Juanito Untzillaitz mendiaren magalean. Ipuin, leienda eta hainbat pasadizoren iturburu



Kezka Eibarko mendizaleen aldizkaria

## Autodidakta baten sekretua: jakin-mina

Esana dugu Juan San Martin bere kontura ibiliko dela bere burua janzen. Irakurle nekagaitza, haren etxeko biblioteca dugu diogunaren lekuko isila. Hautsari bere lana burutu zezan astirik eman gabe. Izan ere, Juanitoren goiburuetako bat giza eta, oro har, kultur fenomeno izatea eta bilakaera ulertzeko egarria izango da. Jakin-mina noranahikoa: munduan izan diren filosofia eta giza jakintzen ezagutza, beraien korronteen berri izateko. Jakin-mina euskal idazle gazteen ekarpena eta proiektzioa aurreratzeko. Jakin-mina, gero ikusiko dugun bezala, euskal artista gazte vanguardisten obrak ezagutzeko eta ezagutarazteko, beraien langintzan akuilu eta bizigarri izateko. Ezin hobeto adierazten du, bada, gure ustez, gizakiaren bizi egarria haren jakin-minaren oldarrak. Juanitoren baitan hartatik asko aurkituko dugu. Gazte-gaztetatik hara eta hona mugiarazi izan duena.

Bada gainera Juanitoren meritu bat ez nolanahikoa. Hark agertzen duen bihotz zabaltasuna. Haren Mekolako etxea, biblioteca, alegia, irekia egongo da garaiko gazteei aholku eta norabide eskaintzeko. Ezetzik gabe.



Donostiako Fortuna mendizale taldeak antolatutako ibilbide neurtuan beste bi adiskiderekin





Familia argazkia: Juan San Martin emazte, haur, neba-arreba eta amarekin

G

## Euskaltzaindiko urte zailak

Euskaltzaindian sartzen den gizaseme hura, beraz, autodidakta da. 1957an euskaltzain urgazle eta 1964an, ordura arte egin duen guztia bere lanaren poderioz lortu duen eibartarra, euskaltzain oso izango da izendatua. Baina urrats handiagoa eginez, bere eguneroko ogibideari orduak eta dirua ebatziz, euskararen babes eta zabaltze lanerako erakunde an idazkari izango da, 1967tik 1978 urtera bitartean. San Martinen ekimenak aurrerapauso handiak ematen lagunduko du. Horrela etorriko dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak 1958an (aurretik Bizkai-

koak ospatzen hasiak ziren). Beste horrenbeste gertatuko da alfabetatze kanpainekin. Euskaltzaindiak bultzatuak gero gau-eskolak izango direnen aurrekari izango dira.

Urte zailak datoz (zeintzuk ez euskararen historia hurbilean!), Euskaltzaindiaren eta San Martinen euskara batuaren aldeko apustuak giro katramilatsua ekarriko dio gure gizonari bere inguruan. Zenbait aldizkaritan idazle ezagun batzuek artikuluak, inoiz liburu



*Hiztegi Batua euskaltzainen hasierako eginkizun zaila*

formatua ere erabiltzen dutelarik, libelo kutsua gehiago duten lanak idatziko dituzte euskara batua eta haren aitzindari eta bultzatzaileen kontra. Beroietan onargarriak zira-tekeen aurreikuspenekin batera, pertsona mailako deskalifikazioak agertzen ziren, maiz oso politizatuak, bestelako kritikekin nahasirik, euskararen aldeko giroa oso endekatzen zelarik.

Euskararen borroka luzean San Martinek Euskal Herrian ditugun giza eragileen artean eman ohi diren kontraesanak nabarmendu izan du beti. Teoriazko aurreikuspen maiz hutsalen aurretik norberaren ahaleginaren balioa aldarrikatu izan du. Berau gabe besteak bide laburra baitu. «Fedea ekintzekin» goiburuak sasi teorizatzaile zenbaiten jarrera salatu ohi du. Eta hori guzti hori euskalgintzan urte zailetan euskararen alde buru-belarri aritu izan den pertsona baten koherentziak ematen duen zilegitasunarekin...



Ikertzaile asko erakarri zituen Erronkariko euskarak

## Idazlanak

Labur esanda, San Martinen hastapenak euskarazko idazle zereginetan Imanol Berriatuak zuzentzen zuen *Anaitasuna* aldizkaria eta Jokin Zaitegik Guatemalatik argitaratzen zuen *Euzko-Gogoa* izango dira. Hitz lauuko lanak izango dira gehienetan. Beste horrenbeste gertatuko da *Karmel* aldizkarian. *Olertin*, berriz, poesia argitaratuko du.

Juan San Martinek bere herriko, bere eskualdeko eta, azkenik, Euskal Herri osoko lan-gaiak jorratu izan ditu. Euskal Kultura abiapuntu harturik, haren adierazpide diren alorrak lantzeko irrika izan du eibartarrak beti. Hots, etnografia zentzu zabalean, beraren magalean ditugularik, esaterako, ahoz



ahozko tradizioa, hots, esaundak, ipuinak, herri kantak. Arlo honetan, aita Donostia, R.M. Azkue, Barandiaran (honek zuzentzen zuen *Eusko Folklore* aldizkarian), eta beste hainbatek jorratu zituzten alorrak osatuz ekarpen berriak eginak ditu. Edota herri-arte, jauretxe, eliza eta baselizen osagai intergarriak azalaraziz. Arrazola anderea, Julio Caro Baroja eta beste hainbat ikertzaile lanak osatzen zituela.

Norbaitek pentsa lezake egungo espezializazio zorrotza aintzat harturik, halako atal aski desberdinak ukitzea nola zitekeen posible. Zenbait gauza izan behar dugu, halere, kontuan. Alde batetik, arestian aipatu ditugun ikertzaile jakintsuen lan eskergagatik ere arlo asko zegoela landu gabe Euskal Kulturaren. Eta jorrraturiko gaiak izanik ere, sistematizatzeko falta handia zutenak. Gero, gainera, euskal bibliografiak hutsune handiak zituen. Lanak oso sakabanatuak agertu ohi ziren, maiz zokoratuak ikertzaile gazteek ezin zitzaizketelarik beraiek balia. Eta, azkenik, euskal ikasketa arautuen hutsunea. Alegia, Euskal Herrian giza zientziak landu ahal izateko bertoko unibertsitatek ez zen garaiak ari gara, hain zuzen.

Arestian aurreratu duguna berretsiz, Juan San Martinen lan eskerga txalotu beharra dago etnografiari buruzko lanen perspektiba zabala eskaintzen lagundu zuelako. 1950etik 2000 urteen arteko aldiari ari gara, berrogei eta hamar urtez, gutxi gorabehera.

## Sorterria abiapuntu, bi liburu aipagarri

Bere goiburu ezagun bati jarraituz ariko da etengabe lanean gure biografiatua. Hots, berak hain gogoko zuen filosofiari: ezagutu ezazu aurrenik zure herriko historia eta jo ezazu gero mundu zabalerantz zurea besteekin osatuz eta aberastuz.

Ildo honetan oso harrera ona jasoko duten bi liburu idatziko ditu San Martinek. Biak teoriarik geografian esparru jakin batera mugatuak baina han-hemenka oihartzun zabala jasoko dutenak. *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965). Bi liburuok tematika bertsu darabilte: umorea, umore zabal, herrikoia, pasadizoz betea. Inor iraindu gabe, liburuon izenburua erabiliz, aldamenekoari *zirikada*



Eibarko Aginagako auzoko elizan F. Arrateren xix. mendeko sermoi sorta aurkitu zuen



bat sartuz, hots, haren izaera edo ibilkera, edota haren hanka sartze dialektikoren bat nabarmenduz, ateraldi bikainak lortzen dituzte bi lanok. Deba eta Ego ibai-errekek el-

kar ezagutzen duten kokagunean sorturiko umorea dugu, Eibar eta Plazentzia-Soraluze-ko herriak nagusiki biltzen dituen mendebaldeko azpieuskalki aberatsean egina. Euskara hark Nikola Ormaetxea *Orix*e eta Seber Altube idazle ospetsuen goraipamena jasoko du.

Liburuetako umorea baserritarra baino kaltetarra da gehiago, zertzelada hau ere berritasun delarik baserritar-kaletar dikotomia aski finkatua baitzegoen orduan oraindik euskal umorean.


Aipaturiko lan biek bigarren edizioa izango dute 2003. urtean. Halaber, San Martinek jasotzen duen umorearen arrakastaren beste erakusgarri bat izango da beste euskal idazle batzuek haren bilduman oinarriturik egingo dituzten argitalpenak. Jon Etxaide eta Juan Martin Elexpuru idazleak ditugu gogoan.



## Juan Antonio Mogel

Eibarko hiriak bere seme ospetsu bati, Juan Antonio Mogel eta Urkiza idazleari, omenaldi beroa eskaini zion 1959an. Eibarren bere bizitzaren lau urte baino igaro ez zituen arren, Euskal Kulturak zor zion omenaldia zen garrantzizkoa. San Martinek ospakizun hartan, eta geroago ere, bere herrikidearen bititza eta lanak goraiatu izan ditu hainbat aldiz. Zein literatur motatan barneratuko genukeen Peru Abarka ez du garrantzi handirik. Bertan isuri den tesi nagusiak, hau da, ba-

serritarra=euskaldun eredugarria zeresan handia eman badu ere, beste adar batetik oratuko diote nagusiki San Martinek eta bestek. Gauza da bizkaiera bikainean idatziriko liburua atseginez irakurtzen den lana izatez aparte, etnografia ikerketarako lanabes egokia eskaintzen duela. XVIII. mendeko ohituen lekukotasuna agertzen zaigu bertan, hain zuzen, kale eta baserri bizitzaren filosofia desberdinaz kanpo, nekazaritzako lanen aipamena eta, batez ere, orduko lanbide garrantzizkoenetako baten azalpena eta zehaztasuna: olen eta ola gizonen lekukotasuna harribitxia da liburuan.



Norbere herritik hasi mundua ezagutzen



## Toribio Etxebarria

Urteen harian jauzi eginez, bada pertsonaia bat Juan San Martinek bere egiten duena erabat. *Bidegileak* bilduma honetan argitaratua dugu haren biografia (17. multzoa). Toribio Etxebarria eibartarraz ari gara (1887-1968), sozialista, humanista, aurrerazale eta euskaltzale, Juanitok amesten duen gizakiaren soslaira hurbiltzen zela esan dezakegu oker ibiltzeko beldurrik gabe. San Martinek Etxebarriaren liburuen hitzaurreak burutuz osatu egingo ditu bere ekarpenekin haiek aberasurik kaleratzen direlarik. Gauzak horrela, aipagarria da Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos* oroitzapen liburua 2. edizioa-



Toribio Etxebarria eibartar idazlea, bere hiriko euskararen biltzaile

ri egin zion hitzaurrea. Ildo beretik Etxebarriaren *Ibiltarixanak* bertso liburuari eginiko 1967ko hitzaurrea ere aipagarria da. Bertan San Martinek bere aurreko belaunaldiaren gazi-gezak kontatzen ditu: hainbeste gertakari latzen inguruan buruari tente eusten jakin zuten pertsonak dira.

Baina herrikidearen alderdi euskaltzalea izango da San Martinek gehiago landuko duena. Etxebarriaren *Flexiones dialectales y lexicon del euskera dialectal de Eibar* liburu aberatsa dugu buruan. Esaterako, Eibarko azpieuskalkiaren aditz laguntzailearen esparruan eta, batez ere, hiztegi mailan Etxebarriaren lanaren gehigarri bezala eginikoa azpimarratuko genuke, honek barneratu gabeko hainbat hitz eta esamolde zenbait barne; oro har, eta bereziki, industria munduko eta botanikari buruzko ekarpenak.



## Gazteen laguntzaile

*L*uan San Martinek euskal idazleen katalogatze eta beraien lanen laginak argitaratuz eginkizun estrategiko bikaina burutu zuen idazleek, batez ere gazteek, beren lanak non eta nola ezagutarazteko baliabide gutxi zuten garaian. Bestalde, ia euskal literaturaren kritikarik egiten ez zen garaian, San Martinen ahaleginak eskergarriak gertatzen ziren, hots, poeta gazteen argitalpenen edizioak, hitzaurreak burutzen zituelarik, maiz hasi berriak ziren idazleek beren literaturgintzan etsi ez zezaten animatuz. *Uhin berri* liburuak aipa daiteke hemen 1964-1969 urteetako euskal olerkari gazteen antologia

bikaina. Beste horrenbeste 1971ean argitara eman zuen *Hegatsez* antologia, Serafin Basauri herrikidearekin batera burutua, 61 idazlearen lan laburrak biltzen dituena. 1980an, aldiz, *Euskararen inguruan* liburuak, saiakera kutsua ere bazuen bildumak, Euskal Literaturaren klasikoari begiratu berezi bat eskaini zion, oso gutxi jorraturiko idazleen lanak barnertzen zituela bertan.

Ildo honetan aipagarria da halaber, *betiko* idazleen datu bio-bibliografikoak eskaintzen zituen *Escritores euskéricos* izenburuko lana 1968an argitaratua gaztelaniaz.



## Gabriel Aresti

Bada euskal olerkari bat Juan San Martinekin harreman sendoa izan zuena. Hau da Gabriel Aresti euskal poesiari jite soziala eman zion olerkaria, euskararen altxorrera, kale, auzo eta lantegi, herdoil eta uger usaina ekarriz, haiek ere gure hizkuntzaren olerkigintzan barneratuz.

Arestik kritika eta hutsune asko jasan behar izan zuen bere jarrera politikoagatik guztiak bere literaturgintzan ere isla zuelarik. Aurre-ratu dugun bezala, euskara batuaren aldeko jarrera zein norberaren ideologia politikoa

nahasten ziren garaia genuen, anabasa hura euskalgintzaren kaltetan zetorrelarik. Baina haren *Harri eta herri* poema liburuak ez zuen 1964ko eta geroko kritika zabar utzi. Aresti-ren poemagintzaren goraipamenean ezin San Martinen ekarpena baztertu. Gure biografia-tuak aipaturiko liburuari eginiko hitzaurreak Arestiren obrari merezi zuen bulka emateko balio izan zuen.



## Olerkari eta itzultzaile

Esan izan da, eta arrazoi handiz gure ustez, olerkia dela literatur mota guztien artean adierazpiderik gorena. Literaturaren Olinpoa. Olerkiak idazkera berezia eskatzen du, jaso, bestelakoa. Bertan idazleak abstrakzioaren gailurra lor dezake.

Guri dagokigunez, San Martinek poesia landu izan du bere literatur ibilbidean baina langintza hau estalia geratu da nolabait gure gizonak lan honetan barrena sailkatu ditugun barrutietan eskaini digun ekarpenarekin. Are gehiago 1950eko urte ilun haietan San Martinek Egiguren, Añamendi eta, batez ere, Otsalar ezizenak erabili zituela kontuan hartzen badugu. Hona zer dioen honetaz poetak *Giro gori* liburuaren hitzaurrean: «Otsalar, erabili nuen izenordez nire olerkiok konprometigarriak zirelako. Nahiz eta ohartu nire pertsona itzaltzen zuela eta nolabait beraien zabalkundea murriztu. Baina, idatzia, idatzirik gelditzen da».

Ondorengo hitzek gerra osteko Euskal Literaturaren bakantasuna islatzen dute: [...] «Gainera, garai haretan oso gutxi ginen euskaraz idaztera ausartzen ginenak eta idazten genuenean guziok elkarren irakurle ginen».

Juanitoren olerkigintzak baina hedaturaz handia izan ez bada ere, poetaren kezka agertzen du gizaki oro inarosten dituen galdetikizunen aurrean. 1954tik 1977 urte bitartean eginiko poesia *Giro gori* liburuan bildu



«Otsalar» olerkariaren lan bilduma

zuen Euskal Herriko Unibertsitateak 1998an beste poeta batek, Felipe Juaristik, buruturiko gaztelaniazko itzulpenarekin.

Eta sarri gertatu ohi den bezala, olerkariak bere uztakoak ez ezik besterenak ere plazaratu ohi ditu. W. Shakespeare, Juan Ramón Jiménez, R. Rilke, F. García Lorca, B. Brecht, besteak beste, itzuli izan ditu euskarara eibartarrak. Baina Salvador Espriu katalan poeta garaikide eta ospetsuaren poemak izan ditu gogoan, nagusiki. Hain zuzen, katalan beraren *El Libre de Sinera*, *Sinera*-ko liburua itzuliko du, humanismo sakon batez buruturiko lana, beronek Espriu bere garaiko europar literaturaren gailurrera eramango baitu.

## Unibertsaltasunerantz herrigintzatik

Toribio Etxebarriaz aritu garenean aipatu dugu San Martinen harenganako hurbiltasuna alderdi humanistatik begiratzuz batez ere.

Bada, Juanitok beti argi izan du herrigintzak baino ez gaituela egiazko unibertsaltasunera eramango. Norbere herria ezagutu, maitatu, haren berezitasunei eutsi (hizkuntza eta kultura, oro har), eta gero maitasun hura, energia hura mundurantz zabaldu begirune osoz, planetakideen arteko bakea eta elkar ulertzea bultzatuz.

Honelako hausnarketa batek ideien mailako aniztasuna du filosofia bezala euskarri, inolako bazterketarik gabe. «Zazpi zigilu ditut» poemaren I. bertsoan irakurtzen dugunez:



Juanitoren goiburuetako bat: «Euskara jakin barik ezin erdararen kontra egon»

Nire herritik mundura  
inor eta ezer uka gabe,  
gizatasunean noa adi zein arretaz,  
hemen inor ez baita sobera,  
naturaz dena delarik bizi-bera

Baina gizakiaren soslai askotarikoa da. Juanitoren idazle goretsien artean Migel Unamuno dugu. Eta ez da paradoxa. Miretsi egingo du eibartarrak poeta bilbotarra, saiakera eta eleberri egilea. Bizitzaren aurrean, besteak beste, gizaki bilutsiak luza ditzakeen galde-



Eibar eta auzo herrietako historiaren ikertzaile nekagaitza

rak: «Zer gara, nora goaz». Baina mireспенak ez du bilbotarraren hutsunea euskararekiko atertuko. San Martinek «Euskalduna zertako» galdera egiten du.

Eta Unamunok ez bezala badaki erantzuna bilatzen. «Honek —esaten digu San Martinek— ez zion gunik aurkitu euskarari. Baina ez zen euskararen errua izan, bere euskararekiko ezjakintasunarena baizik.» Gure hizkuntza ez da bere inguruko hizkuntzak baino ezdeusago,



baina bizi egin behar du, landua izateko esku-bide eta aukera berdintasunarekin, noiznahi eta non-nahi. Hona zer zioen 1967an Jose Azurmendiren galderari erantzunez:

[...] Neuk ere behar bezelako gunik ez nion aurkitu gaztelari. Gaztelera ondo menderatu nahirik eman nituen alperrikako orduak irakatsi zidaten ene arbaso hizkuntza nuela gun hori, arima hori. Ta konturatu bezain azkar jo nuen euskerara.

## Euskal kazetari

Eguneroko errealitatearen talaiari azkarra izanik zer egokiago egunerokotasun horren barruan kazetek eskaini ohi duten berehalakotasuna. San Martinek euskal zein erdal argitalpenetan esku hartuko du bere artikuluekin. Espezializatuak edo informazio orokorrekoak eibartarrak gai desberdin asko jorratuko du han-hemenkako idazlanekin.

Beroietako bat, *Hoja del Lunes* izango da, Gipuzkoako prentsa batasunak astelehenero ateratzen zuen egunkaria.

Astero-astero zenbait urtez San Martinen idazlanak agertuko dira aipaturiko egunkarian ele bietan, gaztelania-euskararen. Eta bertan landutako artikuluok hiru libururi egingo diete bide: *Gogoz*, 1978an, *Bidez*, 1981ean eta, azkenik, *Landuz*, 1983an.



*Fontes* aldizkaria. Ikerlariaren beste erakusleiho bat

## Euskaltzale bat ararteko

Giza eskubideen defentsa beti eraman izan du ikur bezala San Martinek bere bizitzan zehar. Ez gaitu harrituko beraz, Eusko Legebiltzarrak 1989an ararteko izendatzea. Euskal Erkidegoko lehenengo arartekoa izango da harik eta 1995ean kargua utziko duen arte. Gainera, azken urtean Europar Ombudsman izatera iritsi zen. Betekizun zail hari duintasun osoz helduko dio Juanitok.

Langintza berri hura Juanitoren bere bigarren bizilekuarekin batera etorriko da. Hondarribiara aldatuko da Eibartik San Martin eta, bertan ere, ez da geldi egongo. Etnografia lanekin jarraituko du. Bertako *Hondarribia* eta *Bidasoa* aldizkarietan kolaboratu ez ezik bertako Andre Mari Jasokundeko elizari buruzko ikerketa ere egingo du.



Ararteko



Bere bigarren bizilekuan ere denborari etekina lortzen jakin izan du



Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa 2004ko sari-jasotze egunean emazte Mari Pazekin

1964an Lauaxeta kazetaritza saria eman zioten. Ongi merezitako hainbat sariren artean, aipa ditzagun halaber, San Martinek hain estimu handitan izan duen liburuen mundua ukitzen baitute, hurrenez hurren, Bilboko eta Durangoko Liburu Azokek eskaini zizkioten Urrezko Idazluma eta Argizaiola sariak gure biografiatuak euskararen eta euskal kulturaren alde egin duen lan erraldoiagatik. Azkenik, bere bizitzaren norabide koherenteak Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa 2004 saria jasotzea ekarriko dio. Sari-emaileen esanetan: Arteari, Giza Zientziei eta Humanitate jakintzei, oro har, egoniko ekarpenagatik ematen zitzaion hura. Ohore handia merezimendu osoz bere bizitzan zehar lanerako diziplina, kemena eta adorea izan duen gizasemearentzat.

Eibarko udalak hainbat eibartarren ekimena jasoz, 2005eko ekainaren 3an seme kutun izendatzeko erabakia hartu zuen. Euskaltzaleok ederra eta hunkigarria espero genuen ospakizuna atzeratu behar izan zen lan honen hasieran aipatu dugun gure biografiatuaren heriotza azkarrarengatik. Dena den, aurreikusita dago 2005eko udazkenean izendatze horri eustea kultur ekimen interesgarri baten barruan. Tamalez, omendua ez da bertan izango. Halere, Juanitoren oroimena, haren gizatasuna eta irekitasuna, ez dira erraz ezabatuko euskaltzaleen artetik.

Amai dezagun Juan San Martinen biografia labur hau berriro ere haren hausnarketa bartzuk hona erakarriz. «Euskaldun zertako»? galderarekin ari da orain ere:



Oraindik ez dakit ziurtasunez mundu honetan zertako nagoen, baina bai badakit justizia urri dagoela, eta borondate hoberenarekin nijoia mundu hobe baten bila. Euskalduna naiz, eta nahi dut nire herriak euskaldun iraun dezan. Ta, ez da asko eskatzen dudana: gizon guzientzat eskubide berdina, ta herri guzientzat ere hori bedori.

Bilboko XXXIII. Liburu Azokak Urrezko Idazluma eskaini zion San Martini. Hemen Mikel Etxeberria eta X. Kintanaren artean

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagaratik, eskerrak eman nahi dizkie:*

- Julen Zabaleta jaunari argazki hautaketa azkarragaratik
- Yolanda Ruiz Eibarko Udaleko artxibozainari bere laguntza zabalagaratik
- San Martin-Ibeas familiari eskainitako laguntza eskergagaratik

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko maiatza

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2302-2 (Lan osoarena)  
84-457-2306-5

L.G.: BI - I.372-05